Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko ekainaren 2a, osteguna — 104 — Jueves, a 2 de junio de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ASTEASUKO UDALA

*Kultura, Euskara eta Kirola bultzatzeko helburuarekin Asteasuko udalerriaren esparruan diru-laguntzak emateko deialdia.*

Asteasuko Alkate andreak, maiatzaren 19ko 2022/154 Alkatetza Dekretuaren bidez, besteak beste, aginte-zatian horrela dioen erabakia hartu zuen:

«*Lehena.* Kultura, Euskara eta Kirola bultzatzeko helburuarekin Asteasuko udalerriaren esparruan diru-laguntzak emateko deialdia onartzea.

*Bigarrena.* Diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea.

*Hirugarrena.* Deialdi horri dagokion 10.000,00 €ko gastua onestea.

*Laugarrena.* Deialdia eta oinarri arautzaileak argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.»

Asteasu, 2022ko maiatzaren 23a.—Maria Pilar Legarra Cortajarena, alkatea. (3415)

*Kultura, Euskara eta Kirola bultzatzeko helburuarekin Asteasuko udalerriaren esparruan diru-laguntzak emateko deialdia.*

1. *Oinarri arautzaileak.*

Diru-laguntza hauek emateko oinarri arautzaile orokorrak honako ordenantza honetan jasota daude:

Diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailea (2018/10/15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA):

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2018/10/15/c1806803.pdf.

Diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailearen aldaketa (2022/01/26ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA):

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2022/01/26/c2200120.pdf.

Diru-laguntza hauek Asteasuko Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoan (2021/04/23ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) jasota daude, kapitulu hauetan:

— 3. kapitulua: Kultura.

— 4. kapitulua: Kirola.

http://www.asteasu.eus/documents/1329154/4300179/03+I+Eranskina+Asteasuko+Udaleko+Diru-Laguntzen+Plan+Estrategikoa+IRIZTUA.pdf/d04695b9-1118-4cbb-bde7-8993d5bab197.

Diru-laguntza hauek norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira, hau da: aurkeztutako eskaerak alderatuko dira; eskaeren artean lehentasunak ezarriko dira, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera; eta hurrengo puntuan ezarritako muga kontuan izanik, irizpide horien arabera baloraziorik onena lortu dutenei esleituko zaizkie diru-laguntzak.

## AYUNTAMIENTO DE ASTEASU

*Convocatoria de la concesión de subvenciones con el objeto de impulsar la Cultura, el Euskera y el Deporte en el ámbito municipal de Asteasu.*

La Alcaldesa del Ayuntamiento de Asteasu, mediante Decreto de Alcaldía 2022/154, de 19 de mayo, adoptó el siguiente acuerdo, que en su parte dispositiva, entre otros, dice:

«*Primero.* Aprobar la convocatoria de la concesión de subvenciones con el objeto de impulsar la cultura, el euskera y el deporte en el ámbito municipal de Asteasu.

*Segundo.* Aprobar las bases reguladoras que regirán el otorgamiento de las subvenciones.

*Tercero.* Aprobar el gasto de 10.000,00 € que corresponde a esta convocatoria.

*Cuarto.* Publicar la convocatoria y las bases reguladoras en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.»

Asteasu, a 23 de mayo de 2022.—La alcaldesa, Maria Pilar Legarra Cortajarena. (3415)

*Convocatoria para la concesión de subvenciones con el objeto de impulsar la Cultura, el Euskera y el Deporte en el ámbito municipal de Asteasu.*

1. *Bases reguladoras.*

Las bases reguladoras generales de la concesión de estas subvenciones están contenidas en la siguiente ordenanza:

Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 15/10/2018):

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2018/10/15/c1806803.pdf.

Modificación de la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 26/01/2022):

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2022/01/26/c2200120.pdf.

Estas subvenciones están recogidas en el Plan estratégico de subvenciones del ayuntamiento de Asteasu (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 23/04/2021), en los capítulos siguientes:

— Capítulo 3: Cultura.

— Capítulo 4: Deporte.

http://www.asteasu.eus/documents/1329154/4300179/03+I+Eranskina+Asteasuko+Udaleko+Diru-Laguntzen+Plan+Estrategikoa+IRIZTUA.pdf/d04695b9-1118-4cbb-bde7-8993d5bab197.

El procedimiento para la concesión de estas subvenciones será en régimen de concurrencia competitiva, mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una relación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración establecidos en esta convocatoria, adjudicando, con el límite fijado en el punto siguiente, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios.

EK\CV GAO-I-2022-03415

*2. Aurrekontu-kredituak.*

Diru-laguntza ondoren zehazten diren aurrekontu-kredituei egotziko zaie; eta diru-laguntzen gehienezko zenbatekoak honako hauek dira:

4. kapitulua: 06.00.481.330.00.01.2022:

— Kultura: 5.000,00 €.

— Euskara: 1.000,00 €.

4. kapitulua: 08.00.481.340.00.01.2022:

— Kirola: 4.000,00 €.

*3. Diru-laguntzaren xedea.*

Oinarri hauen xedea segidan adierazten diren lerroen diru-laguntzak eskuratzeko eta emateko baldintzak arautzea da, 2021-2022 ikastaro/denboraldiari dagozkionak:

1. lerroa:

— 1.1. Kultura: musika, dantza, abesbatza eta antzeko diziplinak ikastea.

— 1.2. Euskara: euskara ikastea.

2. lerroa:

— 2.1. Kirola: Herrian egiten ez diren kirolak egitea.

Hauek dira lortu nahi diren helburuak:

1. lerroa:

— 1.1. Kultura: Herritarrak kulturako hainbat diziplinetako ezagutzak jaso eta garatzea.

— 1.2. Euskara: Euskaltegietara joatea, euskararen erabilera eta normalizazioa garatzeko.

2. lerroa:

— 2.1. Kirola: Herrian antolatzen ez diren kirolak egiteko aukera izatea, mugitzeak eragindako gastuak ordainduz.

*4. Onuradunak.*

Diru-laguntzen onuradunek, betiere, Asteasuko Udalaren Diru-laguntzen Arautegiak jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eta, horietaz gain, Foru Ogasun, Gizarte Segurantza eta Asteasuko Udalaren zergak eta ordainkizunak egunean dituztela adieraziko dute bere ardurapean.

Betekizun horiez gain, diru-laguntza mota bakoitzarentzat zehazten diren baldintzak egiaztatu beharko dituzte.

Diru-laguntzen onuradunek Asteasun 2021eko irailaren 1 aurretik erroldatuta egon beharko dira, eta dagokion lerroei dagokionez, baldintza zehatza hauek bete beharko dituzte:

1. lerroa:

— 1.1. Kultura: 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera jaio izana.

2. lerroa:

— 2.1. Kirola: 2004ko urtarrilak 1etik, 2009ko abenduak 31 bitartean jaio izana.

*5. Onuradunen betebeharrak.*

Eskatzaileek ondokoa bete beharko dute:

Asteasuko udalerrian izan behar dute helbidea, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko betebeharretan (Hazienda eta Udal Zerga Bilketa) egunean egotea.

*2. Créditos presupuestarios.*

Los créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y la cuantía total máxima de las subvenciones convocadas son las siguientes:

Capítulo 4: 06.00.481.330.00.01.2022:

— Cultura: 5.000,00 €.

— Euskera: 1.000,00 €.

Capítulo 4: 08.00.481.340.00.01.2022:

— Deporte: 4.000,00 €.

*3. Objeto de la subvención.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de las condiciones de acceso y concesión de ayudas económicas a las siguientes líneas de actuación, a desarrollar durante el curso académico/temporada 2021-2022:

Línea 1:

— 1.1. Cultura: formación de música, danza, coros y disciplinas similares.

— 1.2. Euskera: aprendizaje del euskera.

Línea 2:

— 2.1. Deporte: Practicar deportes que no se organizan en el municipio.

Los resultados a lograr son los siguientes:

Línea 1:

— 1.1. Cultura: Aprendizaje y desarrollo de conocimientos de diversas disciplinas culturales por los vecinos.

— 1.2. Euskera: acudir a Euskaltegis para desarrollar el uso y normalización del euskera.

Línea 2:

— 2.1. Deporte: posibilitar la práctica de deportes no organizados en el municipio, abonando los gastos producidos por el desplazamiento.

*4. Personas beneficiarias.*

Las personas beneficiarias de estas ayudas deberán cumplir las condiciones recogidas en la Normativa de Subvenciones del Ayuntamiento de Asteasu, y declarar responsablemente que se hallan al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones y tributos, frente a la Hacienda Foral, a la Seguridad Social y al Ayuntamiento de Asteasu.

Asimismo, deberán acreditar las condiciones que se detallan en cada tipo de ayuda que se explican a continuación.

Las personas beneficiarias de estas ayudas deberán estar empadronadas en Asteasu en fecha anterior a 1 de septiembre de 2021, y cumplir, en relación con las líneas que correspondan, las condiciones particulares siguientes:

Línea 1:

— 1.1. Cultura: Haber nacido a partir del 1 de enero de 2004.

Línea 2:

— 2.1. Deporte: Haber nacido entre el 1 de enero de 2004 y el 31 de diciembre de 2009.

*5. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Las y los solicitantes deberán:

Estar domiciliadas en el municipio de Asteasu, salvo casos excepcionales debidamente justificados.

Estar al corriente en las obligaciones tributarias (Hacienda y Recaudación municipal) y de la Seguridad Social.

EK\CV GAO-I-2022-03415

Onuradunek helburu bererako edo ohiko jardueretarako edozein administrazio edo erakunde pribatu edo publikotatik diru-laguntzarik jasoko balute, Asteasuko Udalari jakinaraztea.

Diru-laguntzaren kontrol eta egiaztapenerako, Udal Kontuhartzailetza eta dagokion udal sailaren mende egongo dira, dirulaguntza motaren arabera.

Udalak kontrol eta egiaztapenerako eskatzen dien informazioa ematea.

Diru-lagundutako jardueretako formakuntza, ikasketak edota entrenamenduetan gutxienez % 75ean parte hartzea, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

*6. Eskaerak.*

Laguntza eskatzeko horretarako dagoen eskabidea bete beharko da; Udaleko web orrian eskuragarri izango da (http://www.asteasu.eus/eu/inprimakiak).

Eskabidearen eremu guztiak bete behar dira.

Eskaerak dagokion sarrera-erregistroa emanez egingo dira. Horretarako, Udalak eskaerak egiteko eskura dituen bideetatik edozein erabil daiteke.

*7. Aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa (1) izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

*8. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

— Eskabide orria, behar bezala betea, eskabide ofizialarekin bat.

— Nortasun agiriaren fotokopia.

— Matrikularen egiaztagiria, ordainagiria edo endosoa, edo gastuaren justifikazioa aurkezteko dokumentu bat (2. lerroko eskaerak izan ezik).

— 1. lerroa: formakuntza edo ikasketa zentroaren txostena, ikaslearen asistentziari dagokiona.

— 2. lerroa: dagokion Kirol-Federakuntzak emandako karneta, eta adinarengatik karnetak ematen ez direnean, federatzeko izen-ematea beharrezko ez den egiaztagiria aurkeztuko da, dagokion Kirol Federakuntzak emandakoa; horrekin batera Kirol Klubaren txostena aurkeztuko da. Oharra: ez dira onartuko Eskola Kiroleko karnetak.

*9. Balorazio-irizpideak.*

Diru-laguntza ematea eta dagokion zenbatekoa horrela zehaztuko dira:

1. lerroa:

— 1.1. Kultura:

200 € arteko kostea: 60 €.

201 €tik 300 € arte: 105 €.

301 €tik aurrera: 155 €.

— 1.2. Euskara: diru-lagundutako kostearen % 60a (250,00 € gehienez).

2. lerroa:

— 2.1. Kirola: Azpi-lerro honen aurrekontuaren kopurua eskaera zenbakiekin zatituko da, eta eskaera bakoitzari gehienez ere 110 € emango zaizkio.

*Oharra:* Emateko kopuruek ezingo dute gainditu diru-laguntza horien azpi-lerro bakoitzeko gehienezko aurrekontua.

Ezarritako irizpideak aplikatzeagatik azpi-lerro bakoitzaren aurrekontu-muga gainditzen bada, onuradun bakoitzari dagokion ehunekoan gutxituko zaio eman beharreko kopurua, aipatu aurrekontu-muga berdindu arte.

Comunicar al Ayuntamiento de Asteasu la subvención la obtención de otras ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualquier administración o entidad, tanto pública como privada, así como las que financien su funcionamiento ordinario.

Someterse al control y actuaciones de comprobación por parte de la Intervención municipal y el correspondiente Departamento municipal según la naturaleza de la subvención.

Aportar la información que el Ayuntamiento les requiera para su labor de control y comprobación.

Asistir a un mínimo del 75 % en los cursos de formación, aprendizaje y/o entrenamientos de las actividades subvencionadas, salvo casos excepcionales debidamente justificados.

*6. Solicitudes.*

Las solicitudes se redactarán de acuerdo con el formulario disponible para tal fin en la web municipal (http://www.asteasu.eus/eu/inprimakiak).

Deberán cumplimentarse todos los campos del formulario.

Las solicitudes se realizarán mediante el registro de entrada correspondiente. Se podrá utilizar cualquiera de los canales disponibles para realizar solicitudes al Ayuntamiento.

*7. Plazo de presentación.*

El plazo de presentación de las solicitudes será de un (1) mes a partir del siguiente día de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*8. Documentación a aportar.*

— Instancia debidamente cumplimentada, de acuerdo con el formulario oficial.

— Fotocopia del documento de identidad.

— Justificación, recibo o endoso de la matrícula, o documento de justificación del gasto (excepto las solicitudes de la línea 2).

— Línea 1: informe del centro de formación y/o aprendizaje sobre la asistencia del alumno o alumna.

— Línea 2: carnet otorgado por la Federación Deportiva correspondiente, y en los caso en los que por edad no se emita el carnet, deberá presentarse certificado de la Federación Deportiva sobre la innecesariedad de inscripción federativa junto al informe del Club Deportivo. Nota: no se admiten carnets de Deporte Escolar.

*9. Criterios de valoración.*

La concesión de la subvención y la determinación de su importe se determinará así:

Línea 1:

— 1.1. Cultura:

Hasta 200 € coste: 60 €.

Desde 201 € hasta 300 €: 105 €.

Desde 301 € en adelante: 155 €.

— 1.2. Euskera: 60 % del coste subvencionado (un máximo de 250,00 € por solicitud).

Línea 2:

— 2.1. Deporte: El resultante de dividir el importe presupuestario de esta sub-línea por el número de solicitudes, con un máximo de 110 € por solicitud.

*Observación:* Los importes a conceder no podrán superar el límite presupuestario de cada una de las sub-líneas objeto de subvención.

En el supuesto de que, en aplicación de los criterios establecidos, se supere el límite presupuestario en cada sub-línea, se minorará el importe a otorgar en cada sub-línea proporcionalmente a cada beneficiario/a, hasta igualar el citado límite presupuestario.

EK\CV GAO-I-2022-03415

*10. Diru-laguntzaren ordainketa eta justifikazioa.*

Diru-laguntza % 100eko aurreordainketa bakarrean da, funtsak justifikatu aurretik.

Diru-laguntza eman zaion jarduera amaitutakoan, oinarri hauetan zehaztu diratekeen sinestamenduak aurkeztu beharko zaizkio laguntza eman duen organoari.

Honako epe hauek ezartzen dira, arau orokor moduan, dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko:

Baldin eta jarduera urtearen lehen seihilekoan garatu bada, epea irailaren 30a baino lehen izango da.

Salbuespenez, urteko azken hiruhilekoan garatu beharreko jarduera edo programen kasuan, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 arte aurkeztu ahalko dira beharrezko sinestamenduak.

*11. Organo eskuduna.*

Espedientea bideratzeko eskumena duen organoa hau da: Kultura Saila.

Espedientea bideratzean txosten hauek jasoko dira: kultura arloko teknikariaren txostena, ebaluazioa edo ebazpen-proposamena.

Ebazpena emateko eskumena duen organoa Alkatetza da; aurretik, Kultura eta Ekitaldiak Informazio Batzordeak irizpena emango du.

*12. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea.*

Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa da.

Gehienezko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, interesatuek ulertu ahal izango dute diru laguntza emateko eskaera isiltasun administratiboz ezetsi dela.

*13. Aplikazio eransgarria.*

Oinarri hauetan jaso ez direnetan, Diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailea (2018/10/15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) eta Diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailearen aldaketa (2022/01/26ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) aplikatuko da.

*14. Administrazio-bidearen amaiera.*

Diru-laguntza ebazteko egintzak amaiera ematen dio administrazio-bideari.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatzen denarekin bat, ebazpen horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Udal honetako Alkate andreari, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera.

*15. Jakinarazteko edo argitaratzeko bideak.*

Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpenak, prozeduraren ebazpena barne, udal egoitza elektronikoan (www.asteasu.eus) argitaratuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

*16. Datuen babesa.*

Abenduaren 6ko 3/2018 legeak, Datu Pertsonalen Babesa eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoak batetik, eta Datu Pertsonalen babesa eta pertsona fisikoen zirkulazio askeari buruzko

*10. Pago y justificación de la subvención.*

La subvención se abonará en un único pago anticipado del 100 %, que supondrá entrega de fondos con carácter previo a la justificación.

Finalizada la actividad para la cual se otorgó la subvención deberán ser presentados los documentos justificativos que se han determinado en las presentes bases.

Se establecen, con carácter general, los siguientes plazos para la presentación de la justificación de las subvenciones:

Si la actividad se ha desarrollado en el primer semestre del año el plazo será antes del 30 de septiembre.

Excepcionalmente, para el caso de aquellas actividades o programas que vayan a desarrollarse dentro del último trimestre del año, podrá admitirse la presentación de los oportunos justificantes hasta el 31 de enero del ejercicio siguiente.

*11. Órgano competente.*

El órgano competente para la instrucción del expediente es el Departamento de Cultura.

En la instrucción del expediente se incluirá el informe, evaluación o propuesta de resolución de la técnica encargada de Cultura.

El órgano competente para resolver será Alcaldía, previo Dictamen de la Comisión Informativa de Cultura y Actividades.

*12. Plazo de resolución y notificación.*

El plazo de resolución y notificación será de 3 meses.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legitima a los interesados para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención.

*13. Aplicación supletoria.*

En lo no previsto en las presentes bases, se aplicará lo dispuesto en la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 15/10/2018), y en la modificación de la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 26/01/2022).

*14. Fin de la vía administrativa.*

El acto de resolución de la subvención agota la vía administrativa.

De acuerdo con lo que disponen los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra dicha resolución podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Alcaldesa de este Ayuntamiento, en el término de un mes a contar desde el día siguiente de la recepción de la notificación, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación, de conformidad con el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

*15. Medios de notificación o publicación.*

Las publicaciones que se deriven del presente procedimiento, incluida la publicación de la resolución del procedimiento, se practicarán en la sede electrónica municipal (www.asteasu.eus), de conformidad con lo establecido a estos efectos en el artículo 45.1. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*16. Protección de datos.*

En atención a lo requerido por la Ley Orgánica 3/2018 del 6 de diciembre de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y el Reglamento (UE 2016/679) del par-

EK\CV GAO-I-2022-03415

Europako Parlamentuaren Erregelamenduak (UE 2016/679) bestetik, ezarritakoari jarraiki, dirulaguntza eskaeretatik lorturiko datu guztiak Asteasuko udalak bildu eta tratatuko ditu eskabidea egoki bideratzeko helburuarekin. Datuak tratatzeko, berriz, Asteasuko udalak ziurtatzen du segurtasun neurri egoki guztiak hartu dituela, eta horretarako langileak trebatu dituela horien pribatasuna bermatzeko, galera ekiditeko, gaizki ez erabiltzeko, ez aldatzeko, baimendu gabe ez sartzeko edota ez galtzeko eta horrekin batera, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko araudia betetzeko.

Agiria sinatu aurretik, irakurri datuen tratamenduari buruzko informazioa:

— Tratamenduaren helburua eta legitimazioa:

Kulturako jarduera eta zerbitzuen kudeaketa, laguntzak, bekak, diru-laguntzak, sariak, kultura espazioen lagapena. Euskararen erabilera eta sustapen politiken normalizazio, ordenazio eta kudeaketa. Kirola, kirol-instalakuntzak eta kirol-jardueren ordenazioa eta sustapena, eta erabilera publikoen kirol-ekipamenduen kudeaketa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Euskadiko Toki-Erakundei buruzko 2/2016 Legea, eta Kirolari buruzko 14/1998 Legean jasotakoarekin bat.

— Eskubideak:

Interesdunek beraien datuak atzitu ahal izango dituzte, eta datuak zuzentzeko eskatu; eta, hala badagokio, datuak ezabatzeko, datuei aurka egiteko edo tratamendua murrizteko.

— Tratamenduaren arduraduna:

Asteasuko Udala, CIF: P2001500D, Lege Zaharren enparantza, z/g, 20159 Asteasu, Gipuzkoa.

— Datuak babesteko ordezkaria:

P3rseus Ciberseguridad, S.L., dpd@p3rs.eus.

— Jarduera-tratamenduak:

www.asteasu.eus/eu/datu-pertsonalen-babesa.

Asteasuko Udalak egiten duen datu pertsonalen trataera legitimatuta dago tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion lege-eginbeharra betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Asteasuko Udalari dagokio udal diru-laguntza honetara sartzeko eta mantentzeko araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, Administrazio Publiko ugarietatik bitarteko telematikoen bidez jasotako informazioa aintzat hartuta.

Kasu horietan, ez da beharrezkoa interesdunari aurka egiteko eskubidea bermatzea, aurka egiteko arrazoiak justifikatuta (Datuak Babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. art.).

Informazio gehiago nahi baduzu, (www.asteasu.eus/eu/datu-pertsonalen-babesa) egoitza elektronikoko Izarea Pertsonaleko Datuak Babesteari eta Segurtasunari buruzko Politikaren atala kontsultatu.

lamento Europeo y de Consejo relativo a la Protección de Datos Personales y la libre circulación de datos de las personas físicas, todos los datos recogidos en las solicitudes de subvenciones serán recogidos y tratados por el Ayuntamiento de Asteasu, con la finalidad de tramitar su solicitud. Para el tratamiento de los datos, el Ayuntamiento de Asteasu asegura haber implantado todas las medidas de seguridad consideradas adecuadas y formado al personal, con el fin de garantizar la privacidad de los mismos, evitar su pérdida, mal uso, alteración, acceso no autorizado y/o sustracción y el cumplimiento de la normativa de Protección de Datos de Carácter Personal.

Antes de firmar el documento, debe leer la información básica sobre protección de datos:

— Fines y legitimación del tratamiento:

Gestión de actividades y servicios culturales, ayudas, becas, subvenciones, premios, cesiones de espacios culturales. Planes de normalización, ordenación y gestión de las políticas de fomento y uso del euskera. Ordenación y promoción del deporte, de instalaciones deportivas, y de actividades deportivas y gestión de equipamientos deportivos de uso público. De acuerdo a la Ley 7/1985 de bases del régimen local, Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi, y Ley 14/1998 del Deporte.

— Derechos:

Los interesados pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través del Delegado de Protección de Datos.

— Responsable del tratamiento:

Asteasuko Udala, CIF: P2001500D, Lege Zaharren enparantza, z/g, 20159 Asteasu, Gipuzkoa.

— Delegado/a de protección de datos:

P3rseus Ciberseguridad, S.L., dpd@p3rs.eus.

— Actividades de tratamientos:

www.asteasu.eus/es/datu-pertsonalen-babesa.

El tratamiento de los datos de carácter personal por parte del Ayuntamiento de Asteasu queda legitimado en el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento, en los términos previstos en el artículo 6.1.c) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016.

La verificación del cumplimiento de los requisitos establecidos en la presente normativa, para acceder y mantener esta subvención se realizará por el Ayuntamiento de Asteasu conforme a la información que se recabe por medios telemáticos de las diferentes Administraciones Públicas.

En estos casos, no es necesario garantizar el derecho de oposición a la persona interesada que justifique las razones de su oposición (art. 21 del Reglamento (U.E) 2016/679 de Protección de Datos).

Para más información, consulte en el área de Política de Protección de Datos Personales y Seguridad en la sede electrónica (www.asteasu.eus/es/datu-pertsonalen-babesa).

EK\CV GAO-I-2022-03415